

HIZKUNTZALARITZA. Iazko ekainean egin zioten omenaldian sortu zen liburuaren asmoa

Pedro Irizar euskalariaren memoriak argitara eman ditu Euskaltzaindiak

Ohorezko euskaltzaina da, eta oso lan aberatsa egin du, euskalkien azterketan batez ere

Mikel Kintana | BILBO

Euskaltzaindiak Pedro Irizar euskararen inguruko ikertzaile eta ohorezko euskaltzainaren memoriak eman berri ditu argitara: *Memorias de un vascológico. Mis relaciones con lingüistas y colaboradores* (Euskalari baten memoriak. Hizkuntzalari eta laguntzaleekin izan ditudan harremanak). Liburuak bi zati nagusi ditu: lehenak autoreak hainbat hizkuntzalarirekin, batez ere, hainbat euskalarirekin zuen harremana erakusten du; bigarrenak, euskalkien eta euskal aditzaren inguruan datuak eta informazioa emanez, berarekin lankidetzan aritu direnekin zitu harremanak azaltzen ditu.

Euskalkien inguruan lan sakon eta garrantzitsua du egina Pedro Irizarrek eta, lan horiek eskertzeko, 2001eko ekainaren 21ean omenaldia jaso zuen Euskalariaren Adiskideen Elkartearen ordezkaritzaren eskutik. Omenaldi hartan, Hendrike Knörrek Irizarren gutun eta bestelako idazlan argitaragabeak aipatu zituen. Euskaltzaindiak, obra horien edukia ezagutu ondoren, haien argitalpena egokia izango zela pentsatu zuen. Irizarren memoriekin batera, Pedro Irizar eta Koldo Artolaren *Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro oriental: I, II, III* ere kaleratu du Euskaltzaindiak (*Ekialdeko behe nafarreraren aditz laguntzailearen morfologia: I, II, III*).

Irizarrek 2001ean 91 urte



MAXIKATZEN
Pedro Irizar hizkuntzalari Azkoitian jaio zen, 1910ean, eta Madrilen bizi da aspaldidanik.

bete zituela-eta, jasotako omenaldia luzatu nahi izan du Euskaltzaindiak argitalpenekin.

Pedro Irizar Barnoya 1910eko abuztuaren 11n jaio zen, Azkoitian (Gipuzkoa). Euskaltzaindiak 1947ko martxoaren 28an euskaltzain urgazle izendatu zuen. 1950ean, Euskalariaren Adiskideen Elkartearen Gorteko lehendabiziko ordezkariz izendatu zuten. Elkartearen ordezkaritza Madrildik egin zuen, 50eko hamarkadatik 60koaren erdira bitarte.

Ohorezko euskaltzaina den

ARGITALPENAK

Pedro Irizar eta Koldo Artolaren 'Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro oriental: I, II, III' ere kaleratu dute

honek, urteetan zehar, euskalari bezala euskal hizkuntzaren dialektologian eta aditzean egindako lana ikusgarria eta oso aberatsa izan da.

Hizkuntzalari ez ezik, ingeniari, ekonomialari eta geografoa ere bada, eta «hizkuntzalari-tzan egin dituen lanen garrantziak Louis-Lucien Bonaparte handiaren gaineratik jarri dute», Henrike Knörr euskaltzainburordearen iritziz. Jakina denez, XIX. mendean euskalkien inguruko lehenengo mapa egin zuen Bonapartek.

1987an Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen Pedro Irizar, euskararen inguruan lanean egina zuen ibilbideagatik.

EUSKARA. Demoen kontrako epaiketa eta igandean egindako atxilotetak gaitzetsi ditu erakundeak

Euskal Konfederazioak euskararen aurkako erasoak eta eskubideen urraketa salatatu ditu

Erredakzioa | BAIONA

Euskal Konfederazioak «azken astean euskarak jasan izan dituen erasoak» salatatu ditu, hedabideetara igorritako prentsa ohar baten bitartez. «Gertakari horiek euskararen eskubideak sistematikoki ukatzen eta urratzen direla erakusten dute», azpimarratu du Euskal Konfederazioak.

Urriaren 10ean Baionako Auzitegiak hiru *demo* epaitu zituen, Baionako SNCFaren tren geltokian herri ondasunak zar-

pailtzeaz eta hondatzeaz akusaturik. Prokuradoreak 1.800 euroko isuna eskatu zuen *demo*-en aurka. Auzi berean, epaileak euskaraz mintzatzeko eskubidea ukatu zion auziperatuetako bati eta auzipetua, euskaraz mintzatzeko hasi zelarik, bortizki ateratu zuten aretotik.

Horrez gain, urriaren 13an lau manifestari atxilotu zituzten Baionako tren geltokian, bertako taula nagusia kendu eta taula elebiduna ezartzeagatik. Bi gertakari horien kariatara, Euskal Konfederazioak hizkuntza es-

kubideak bermatzea eskatzen du.

Hizkuntza eskubideen inguruko jurisprudentzia eskatu du

«Baionako Auzitegiaren lehendakari andeari oroitarazi nahi diogu auziperatuek lehenagotik ere euskaraz mintzatzeko aukera izan zutela, bai auzitegi frantsesen aitzinean, bai Baionako Auzitegiaren beraren aitzinean», dio Euskal Konfederazioak, prentsa oharrean. Ildo horretatik, lehenbailehen hizkuntza eskubideen inguruko

jurisprudentzia ebatz dezala eskatzen dio Baionako Auzitegiaren lehendakariari.

Bigarrenik, SNCFren elebitasunarekiko jarrera ukatzailea salatatu du; eta nabarmendu zuen horrek ez dituela aski ez bezeroen eskakizunak, ez Hautetsien Kontseiluak 1997an egin elebitasunaren aldeko adierazpena.

Bukatzeko, Euskal Konfederazioak dei egiten die hautetsi eta botere publikoei «euskararen errespetua zehazki eta egiaz har dezaten, elebitasuna onartuz bizitza publikoaren arlo eta instituzio orotan, aurkako erasoak behin betikoz geldiaraziz».

BOROA

Sozialista Abertzaleek larunbateko manifestaziora deitu dute

Ainhoa Güemes | BILBO

Bizkaiko Sozialista Abertzaleak taldeko Maite Barreñak eta Julen Aginako deia egin diete bizkaitar guztiei, larunbatean Zornotza Bizirik Plataformak Boroako zentral termikoaren aurka antolatutako manifestazioan parte hartzeko.

Zornotzako Udalak zentrala ezartze bidean emaniko azken urratsen balorazioa egin zuten biek, atzo Bilbon eskaintako prentsaurrekoan. «Argi eta garbi ikusten dugu bide administratiboa eta eztabaida politiko guztiak agortu direla», esan zuen Barreñak, eta azpimarratu zuen zornotzarren iritzia bermatzeko «era guztietako formula administratiboak zein politikoak» erabili dituztela.

Ildo horretan, «euskal herriak Lemoizko zentralarekin lortutakoa errepika» daitekeela ohartarazi zuen, eta herritarren mobilizazioek lortuko dutela Boroako zentrala geldiaraztea. «Azken bultzada politikoak ikusita, uste dugu bigarren fase batean gaudela; ezetz tinko esateko garaia heldu da», esan zuen Barreñak.

Sozialista Abertzaleen arabera, Boroako zentral termikoaren inguruan EAJren eta ESBren arteko «ezkontza faktikoa eta interesatua» ematen da. Hala, Zornotzako herritarren iritzia errespetatzea eskatu diete biei. «Herriak erreferendumean ezetza eman osten, Boroako zentrala iruzurra eta inposaketaren bidez eraiki nahi dute», nabarmendu zuen Barreñak.

«Zeren truke saldu du EAJk Zornotzako herria?»

Bizkaiko Aldundiak herenegun argitu zuen laster hasiko direla zentrala eraikitzeko lanak. Ildo horretan, Sozialista Abertzaleek galdera aurkeztu dute Bizkaiko Batzar Nagusietan, Josu Bergara diputatu nagusiak erantzun dezan. «Egunen baten jakingo dugu EAJk zeren truke saldu duen Zornotzako herria», adierazi zuen Barreñak.